



Batikano'tik.

Egunokaz ilaren 11'n. Europa'ko guda galgariaren amalau-garfen urteurena ospatu dabe, bakea egun oretan izenpetu zan-eta. Paris'en batez be andikiro ospatu da. Baña izpar begikoa Buenos Aires'etik eldu da. Buenos Aires'eko Gotzain-eleizan guda galgarian ibili ziran Alemandar, Austria'tar, Ingalandar, Italia'tar, Ipar-Amerikar, Polonia ta Yugoeslabia'tar eta abar gudariak, gudaldian il ziran *zortzi miloi* gudarain aldez otoi egiteko bildu dira, eta Aita Santua'ri urutidatz begiko bat zuzendu dautse, guda galgariaren ondorenak osatzeko egin dituan alegiñak dirala-ta, eskar ona agertzen, eta gurari bizi bat agertzen dautse bake-aldez, gustien eskubideen alde, eta bizitz ondasunak egokiroago bananduteko egiten dautsen guraria lateriak ontzat emon dayezan. Aita Santua'k samurkiro eranizun dautse, eskar ona ta euroen asmoak onesten dituala adieraziaz.

Emen ikusten da zinesteak zelango indara dauken, biotzak alkartzeko, eta alkarren aurka ibilitako biotzak maitasun batean alkartzen dituala.

Ungaria'ko agintari lendakari Gomboes'ek Aita Santua ikertu dau. Ondoren ordu erdi bat Aita Santua'gaz eginda, Pacelli kardenala ikertu dau.

Ruteno'tar eleizkerako katolikoak gaur 5.165.385 dira Txekoslovakia, Rumania, Polonia, Ipar-Amerika ta Argentina'n zabalduak. Eleiza gurtzakera ofetako abade-ikastetxe bari bat egunokaz onetsi dabe ta bertako ikasleak Aita Santua ikeritzen yoan dira. Rutenerako Gotzainak batean. Amar Gotzain izan dira Aita Santua'k gustiai eskua mun-egiteko emon ondoren, itzaldi samur bat egin eutsen, bere poza ta eurakan eukozan itzaropenak azalduaz.

Paris'eko Katoliko-Ikastetxea.

Paris'go Ikastetxe katolikotafak bere ikastaroai eleizkizun bategaz asiera emon dautso... Baudrillard agurgariak Mesa bitartean itzaldi eder bat egin eban, eta gero idazkariak iratizkiñez, ikastetxe onen lanak azaldu zituan. Aurten 2.000 ikaslelik gora izan dira orain arte izena emon dabenak. Aurten barizkunde batzuk be egin ditue, batez be Fisikako lan-gela bari, Braanly asmatzale ospetsuaren zuzentzapean egiña. Gustiok dakigu Braanly ospetsu au izan zala lenen «radio» gayetan asmakizunak egin zituana. Eta gero, saritan gertatzen dan lez, beste batzuk izan dira asmakizun ori aufera eroan eta onura geyago atara dautsienak.

Txikago'n ba'dira esku zabalakoak...!

Mundellen kardenal ospetsuaburu dabela, Txikago'n emaku-

me katolikotafak urteroko batzaña egin dabe. Mundelein kardenalak itzaldi eder baten euren lan eder eta beafekoan aufera yafaitzeko esan dautse, orain arte asko egin ba'dabe, auferantzean, bearifan ukarituez doazalako, eten barik bide oferi yafaituteko eskatuaz.

Len egindako lanen bari emotean adirazten emon dautse amabost urte onetan Txikago'n eruki-egintzetarako katolikotafak emon dabena *amar miloi dolafera* eltzen dala. Eruki-egintza, maitasuna, nai ta ezkoa dala esan dautse eta bearifan ukaritu diran ezkeron, nai ta ezkoa dala albait geyen laguntzea. Eta lan ofek eten bakoak izan bear dau, alkartasun, maitasun eta zintsotasunezko ikasbidea emon eta euren auferitakoak zerruan irabazi eben saria eskuratu daben.

Mixiñolariak eta osagiletza.

Mixiñolariak osagile-gayetan zerbait aituak izatea egoki baño egokiago eurentzako ta besteentzako dalako, Aita Santua'ren guraria beteaz, ainbat dira gai ofetzaz zerbait ikasten dabenak. Saspigaren aldiz Lile'ko katolikotar ikastetxe Nagusian osagiletzako ikastaro bat izan da, ile bian irauan dabena. Mixiño erkiotarako egokien dana ikasi dabe. Ikastaro onetan 53 mixiñolari ibili dira, amaika Gopatz edo Ordenatakoak. Geyenak pantzetañak izan dira; enparauak, amar beljekar, iru españar, iru ingalandar, italitar bi eta suizar bat izan dira. Gustiak euren agiria azterketan irabazi dabe.

«Fides» deritxon mixiño-izpar landola.

Gure aizkide *Yon de Olaeta*'k «L'Osservatore Romano» lan eder bat argitaldu dau. «Fides» deritxon izpar-landolaren eragipenak azalduaz. «Agenzia Internazionale» «Fides» izenaz landola au 1927'n irasi zan. Gaur 425 izpar-biltzale Asia, Apirka, Amerika ta Ozeania'n bananduta daukoz eta «Propaganda Fide» ardurapean dagozan Europa'ko erkietan be bai. Orez gañera, beste 30 erki garantzisuetan berarizko izparkariak ditu, ango gora-beren bari argi ta egiz emoteko.

Landola onetan lan egiten dabenak, bost izkuntzarako (pantzeraz, ingalanderaz, italera, españeraz eta alemaneraz) zazpi idazle dagoz, euren artean gure aizkike Unzalu yauna. Landola onen garantzia emon ikusi geinke. Gaur 1620 izparingi ta aldizkingi dira «Fides»eko izparafak argitaltzen dituezanak, izparingi oneik 42 lateritakoak dira. Or ikusi geinke landola ofek zelango lan edefa egiten daben mixiñoetako bari emonaz eureganako maitasuna ta laguntza emotera biotz asko bultzatzen dituz eta.

Pantzetar katolikoan batzaña.

Montmartre'ra bidezkundea egin ondoren, Pantzetar goterkiatiko Alkartasun ordelariak, amabigaren batzaña egin dabe Castelnau gudalburua lendakari ebela. Katoliko-Bazkuntetako ordelari asko bertan ziran. Aita Santua'ri maitasun eta menpetasuna agertzen urutidatz bat zuzendu eutsen. Lenengo adiraldu eben auzia irakaskintzazkoa izan zan. Batzafak erabagi eban katoliko-irakatsi arauz, on eta gai danak irakasteko eskubidea daukola; lateriak sendi gustien auferan egin bear bardiñak ditu eta beraz, ikastola baten naiz bestean ibili, umeak ondo azten laguntzeko eginbeña dauko; eta azkenez, ikastola bakañaren aurka gogor egitea, irakaskintza azkatasunaren aurka doa-ta. Olango zerbait emen be ez itzakigu txarto etoriko. Orez gañera, oin lateriak alde gustietan batera ta bestera aldatzeko idazfitegiak ipinteko asmoa dabela-ta, katolikoak ain asmo ona idazti txarraf zabaltzearen kaltegarri biurtu ez daiten, alegin gustia egitea erabagi eben. Gaurko untzea orixe dago izan be; ikastola onak eta irakurgai onak...

Kristiñau - Ikasbide sariketak Efoma'n.

Urtero lez andikiro ospatu dira, Kristiñau-Ikasbidean azterketara aurkeztu diranak saritzeko egin diran yayak. Batez be, «Imperatore della Dottrina Cristiana» irabazi daben gorlabenez. Yai onetan agintariak euren ordelariak izan ditue, sendiak ugari eldu dira, eta Aita Santua'ren Ordezko kardenala beste Gotzain batzukaz bertan izan da. Aurten ume geyago bildu dira, ikastoleitako mutilak eldu dira-ta. 521 aurkeztu ta 420 sarituak izan dira. Izentatzea egin baño len, Cericioni agurgariak itzaldi eder bat egin eban Kistar-Ikasbidea ikastea, bizitza onagaz osotu bear dala azalduaz. Ondoren, Kristiñau - Ikasbidean «Imperatore» urten dabenaren izena irakuri eben eta S. Maria in Via parokiko *Felici Giorgio* gastetxea izan da. Apalik eta pozik gaztetxo au Kardenalaren eskueiatik ezaugari ta saria artzen ureratu zan. Eta «Imperatore» ezaugariakaz apainduta, beretzat gertautu egoan yarlekura yoan zan, txalo bizen artean. Gero bere inguruko sarituakaz bere parokira yoan eta an gure Yaunaren auferan «Te Deum» abestu eben. Gero zorionak emotea izan zan. Ara Efoma'n Kistar-Ikasiari emoten dautsen garantzia...!

Katoliko gaste bat Txapeldun.

Izlaritza-txapelketa, VII'n aldiz Ipar-Amerika'n ospatu da eta bertan txapeldun pantzetar katoliko gaste bat izan da. Amazortzi urte baño ez ditu, Georges Paul Dominé.

Eskeñik asko...!

Kuba'tik lagunon batek, aldizkingi mordo bat Ipar-Amerikar eta bertakoak bialdu dautstaz, eta auferantzean bialtzeko asmoa agertzen dau, EKIN'en izparafetarako. Eskeñak biotzez! M'tar G.

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA

Mañari.

Irakaslia'ren gomutaz.

Ilonen 27'gn. emengo elezan emongo dan amafetako mesa nagosija, Arana eta Goiri'tar Sabin geure Irakasle maitiaren eta enparau ildako abertzalien alde ixango da.

Efukizko egintza ofetara, abertzale guztijok erdu biar gara.

Juan-etorijak.

Emen aurkitzen da egun batzuk igaroten, ixenordiazagaz Ereño'tik aseteroko onetara idazten daben neskatil zintzo ta begikoa.

Abadino'ra juan zan, Usaola'tar Martiñe.

Palenzia'ra, gudaritza betetuten, Befizbeitia'tar Segunda mutila.

Galdakano'tik etofi zan, Ozerin'tar Eusebe anderea.

Gexorik.

Egun ontan gexorik aurkitzen da, «Insuntza»ko Agifezabal'tar Kepe (Petra) anderea. Arin osatu.

Oturuntza.

«Azkoti-Erdikoa»ko afobiko biargiñak, euren ugezaba igazitako egubaztenian ezkondu zala-ta, igandian, aren ezteguba ospatutiafen, azkari (merijenda) edefa jan eben. Eta, olakuetan beti oi dan lez, umore ona ta kantua ugeri erabili eben. Mama-gozua ezta alpefik edaten...

Durango'ra.

Igandian, ilonen 27'gn. Dzurango'ko Emakume-Abertzale-Batza'k ospatuko daben jai edefera, emendik be (J. L.), lagun asko juango gara. Eguraldi onak laguntzen ba'dausku batez be.

Urkiola'ra.

Igandian be Urkiola'ra, oñez ta tarantez ainbat lagun juan ziran. Neguba ixan afen, jentiar, Urkiola'rako bidia etxako aztuten.

Eguraldija.

Egun argi edefak, gura baño lenago igasi dauskube, ta ilun-euritsuak beingoan agertu yakuz. Ta, olan jafaitzeko itxuran agertu be... Negu gogofa ganian dogula esan geinke. Onik aufera, iluntxijetan eta igande afatsaldetan «katuen-atxonduan» ja zelako egotarua eukiko dogul

MAÑARIKO

Eunak eta sofeko egiñak

Zeara'tar Erupin

Tenderia 15

Bilbao

Meñaka.

Meñaka'ko kaletafak ixilik dagozan artian menditafok asi biar dogu zerbait esaten: lenengo danok agurtuaz.

Eleizkizunak.

Aspalditxoan eleizkizun edefak egiten dira gure Eleizan, eskeñak gure neskatilan abesti gozo ta alaitsuari. Zelako mesea, zelako Jaunartze ta afatsaldeko eleizkizunak neskatilak abestuten dabenian! (1). Zerutar usaña artzen dabe ofela abestuten daben neskatilok.

¡¡¡Mutilak!!! Eskurik-esku erabiliko lora tximufak barik, ofelako lorak gura leukezak emastetzat!

Papafian abertzale ikufintxu politagaz egoan mutil batek deitu eutsan gure neskatila bateri *baltzeorako*. —Zu lako abertzale *paltzorik* ez dogu biar abertzale artian: erantzun eutsan neskatila zintzo arek. Ikasi gastiak neskatila ofen irakatsi edefa (2).

Espata-dantzariak.

Emeko gastetxuak poliño ikasi dabe dantza poliñ eder ori: baña mutil nagosiak makil dantzan baño, askok asto joten *konpasa* obeto ibiliko dabe.

Basurdak.

Aspalditxoan ez da basurden zaratarik. Artoak soloetan egozan sasoyan yatzi ziran igande goix baten, baña tabernaldeko neskatila batek abefi aberkoyekaz uxatu ta Derioruntz yoan ziran. Gau erdian bafiro sartu ziran efira gafasika ta gifintzika: (eskeñak Jaunari euzkaldunok basurden izketarik ulertuten ez doguna) baña Mesterika'ko katuan mi-auak iges erain eutsien Mañaka bafeneruntz. Biar bafekukak direna bada-kizue.

Zuru-murua.

Abenduan Gogo-iñarkunak edo ejerzizioak emoten Goikoetxea aba etofiko dalakoa entzun dogu. Olan-txe izan bedi: besuak zabalik artuko dogu meñakar gustiok-eta.

Izpar-baltza.

Mungiajtik etxera datofela aurkiñ dau eriotzia Ugarte'ko Ziafeta'tar Kepa kristiñau ta abertzale zintzoak (G. B.) Eritafok bere eriotziak oso mindu gaitu. Bere emazte ta seme-alabai geure samin-agufik biotzetikoena.

Auferaspideak.

Afieta ta Meñaka'ko Alkate ta Epaikariak baimena emon dautse, geure etxe ondolik bide bafi ta tren-bidea egiteko. Abadiak be gauza ofek oso egokiak dirala deritxoe. Pozik nogo.

«Electro-dinamo» bat be geure efebartian ipinteko asmoa daukot. Meñaka'n tximista-argirik ez dagon lez, *negosio a lo grande* egiteko era edefa dala uste dot.

Ia ba abarka kordel batzuk edo... gertauzuez, Urietako eran dindiliska egoten diran argi batzuk ipiñi biar dira-ta. Tximista ataraten neu naz mutila ba!

TXORIANEKO

(1) Ez dabe beti abestuten ala?

(2) Tira itz gogor-samafaz erantzun eutsan, baña onezkeru igariko eban mutil ofek, aek neskatilak ezafoia eukala, ta ikasbide eder bat emon eutsala, ta beraz mesede andia egin eutsala.

Eleiz - Jantzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Eleizak jasateko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

Bermeo.

Efi onetako abertzalien aurkako jasarpenak jafaitzen dabe oindiño, eta orainguan jasartubak lau emakume ta mutil gazte bi ixan dira, ba aseltoko txiñelen belbilean, eta amala txiñelen erdijan, Gernika'ko espetxeratuak ixan dira. Azkarai'tar Monike, Kosta'tar Enkarnazion, Zubiega'tar Elixabete, Uriondo'tar Luke, Zubiaga'tar Antzelma, eta Arke'ta'tar Albin. Lenengo irurak beste andra batsukaz txaidian sarataka ibilfiaten esafi eutsen eun lauerlekoko zigofa, ordaindu nai ezebelako ixan ziran espetxeratuak.

Eun lauerlekoko zigofari azkotxu deritxogun afen, eztozu uste txaidietan sarataka dabiltzazan andrak zigortutia txarto daganik be, baña espetxeratuak ixan diran andrak, guztijak dira abertzaliak eta gnon dagoz ofekaz sarataka ibili diran beste andrak? Len esan dodan lez ba, eztozu uste txaidietan sarataka dabiltsazan